

## BESTELAKO XEDAPENAK

### ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

## 4829

*432/2013 DEKRETUA, urriaren 22koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakundeko autonomoaren Administrazio Kontseiluko kide bat kargutik kendu eta beste bat izendatzeko dena.*

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari buruzko 13ko 3/2011 Legearen bidez, izaera administrati-boko erakunde autonomo gisa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua sortu zen; eta bere 7.1 artikulua xedatzen duenez, Administrazio Kontseilua aipatu erakundearen gobernu-organo goren da.

Maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaz Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua estatutuak onartu ziren, eta bere 6.2 artikuluan zehazten denez, Administrazio Kontseilua honako hauek osatuko dute:

- a) Lehendakaria, enpleguaren arloan eskumena duen saileko titularra.
- a) Lehendakariordea, enpleguaren arloan eskumena duen sailburuordetzako titularra.
- c) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia.
- d) Eusko Jaurlaritzak izendatu, eta, hala badagokio, kargutik kenduko dituen bi bokal, enpleguaren arloan eskumena duen sailak proposatuta.
- e) Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkari handiena duten sindikatuen ordezkari bost bokal; zeintzuk aipatu sindikatuak aukeratuko dituzten eta Jaurlaritzak izendatu dekretu bidez.
- f) Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkari handiena duten enpresa-antolakunde iterektorialen ordezkari bost bokal; zeintzuk aipatu antolakundeak aukeratuko dituzten eta Jaurlaritzak izendatuko dekretu bidez.

Azaroaren 29ko 253/2011 Dekretuaren bidez (2011-12-12ko EHAA, 233. zk.), Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren Administrazio Kontseiluko kideak izendatu ziren, betiere hura arautzen duen legean agindutakoarekin bat etorriaz.

2013ko uztailaren 29an, Unión General de Trabajadores de Euskadi sindikatuak bidalitako komunikazioa jaso zen, non Batzorde Eragilearen honako erabakiaren berri ematen baitzen: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakundeko autonomoaren Administrazio Kontseiluan aipatu sindikatuak ordezkari handiena duten pertsonetarikoa bat aldatzea; beraz, beharrezkoa da egoki diren kargutik kentzea eta izendapena egitea.

Horrenbestez, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko urriaren 22an egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, honako hau,

#### XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakundeko autonomoaren Administrazio Kontseiluan sindikatuen antolakunde eta konfederazioen ordezkari handiena duen kide hau kargutik kentzea:

Ordezko bokala:

– José Ramón Lopategui Martín, Unión General de Trabajadores de Euskadi (UGT) sindikatuak izendatutakoa.

2013ko azaroaren 8a, ostirala

2. artikulua.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakundeko autonomoaren Administrazio Kontseiluan sindikatuen antolakunde eta konfederazioen ordezkaritza izango duen kide hau izendatzea:

Ordezko bokala:

– Jesús García de Cos, Unión General de Trabajadores de Euskadi (UGT) sindikatuak proposatutakoa.

3. artikulua.– Dekretu honek onartzen den egunetik izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2013ko urriaren 22an.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,  
JUAN MARÍA ABURTO RIQUE.